



GOBERNU BILERA

**Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak**

CONSEJO DE GOBIERNO

**Dossier de Prensa
Acuerdos destacados**

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailak 26

Vitoria-Gasteiz, 26 de septiembre de 2023

Segurtasuna

EUSKO JAURLARITZAK HANDITU EGIN DU ERTZAINZTA EUSKALDUNTZEKO KONTU-SAILA, AGENTEEN ESKAERAK NABARMEN EGIN BAITU GORA

- **600.000 eurokoa izatetik 850.000 eurokoa izatera igaroko da, agenteek, dohainik, euskara ikasi ahal izan dezaten lan-ordutegitik kanpora**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran erabaki du Segurtasun Sailaren eta HABE – Helduen alfabetatze eta berreuskalduntzerako erakundearen arteko akordioa, ertzainak euskalduntzeko ikastaroak lan-ordutegitik kanpora antolatzeko dena, zabaltzea, bai denbora-horizonteari dagokionez bai aurrekontuari dagokionez.

Indarrean dagoen akordioa 2022ko irailaren 22an izenpetu zuten, eta guztira 600.000 euroko aurrekontua aurreikusten zuen 2023ko irailaren 30era bitartean antolatuko ziren ikastaroetarako: 400.000 euro 2022rako eta 200.000 2023rako. Eskaerek nabarmen gainditu dute hasierako aurreikuspena, eta aurtengo, 2023ko, kreditua, beraz, ez da nahikoa izango. Hori dela eta, Jaurlaritzak akordioa zabaltzea onartu du, bai denborari dagokionez bai aurrekontuari dagokionez. Horrela, 2023ko urriaren 1etik 2024ko irailaren 30era arte luzatu du eta 850.000 euro esleitu ditu: 550.000 euro 2023rako eta 300.000 euro 2024rako.

Akordioak HABEren kargu uzten du Ertzaintzako pertsonalarentzat aurrez aurreko nahiz autoikaskuntzako ikastaroak antolatzeko jarduera materialen, teknikoen eta zerbitzuzkoen kudeaketa. Horrek errolda euskalduntzeko bidean aurrera jarraitzeko aukera emango du, horixe izanik herritarrei zerbitzu hobea eman ahal izateko polizia-erakundea sendotzeko Segurtasun Sailaren lehenetako helburuetako bat, gizartearekin harremana euskaraz izango duen Ertzaintza izateko gero eta handiagoa den eskaerari erantzun ahal izateko.

Elkarlanean 2017tik

HABE erakundea eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila 2017tik ari dira elkarlanean, urte horretan ezarri baitzen urtero berritzen joan den lehenengo hitzarmena. Adostu den zenbatekoak ikastaroetan parte hartu nahi duten agenteen matrikulen eta tasen kostua estaliko du.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

EUSKADIKO ABELTZAINZAKO ARRAZA GARBIAK MANTENTZEN, HOBETZEN ETA SUSTATZEN DITUZTEN ELKARTEENTZAKO LAGUNTZAK ONETSI DIRA 480.000 EUROKO ZUZKIDURAREKIN

- **Elkarte horiek arraza garbien abeltzaintzako ustategien modernizazioa sustatzen dute ekoizpenaren eraginkortasuna eta errentagarritasuna hobetzeko**
- **Hauetatik eratorritako gastuak diruz lagunduko dira: abeltzaintzako lehiaketak antolatzea eta horietan parte hartzea, liburu genealogikoak mantentzea eta abereen kalitate genetikoari edo errendimenduari buruzko probak egitea**

Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko arraza garbien abeltzaintzako elkarteentzako 2023 deialdiko laguntzak onetsi ditu. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Arantxa Tapia sailburuaren aginduan adierazten denez, neurri horretara bideratutako zuzkidura 480.000 eurokoa izango da.

Elkarte onuradunak ekoizpenaren eraginkortasuna eta errentagarritasuna hobetzeko helburua duten arraza garbietako abeltzaintzako ustategiak izango dira, programa berritzaileak eta teknologia berriak aplikatuta modernizazioa koordinatzen eta sustatzen dituztenak.

Liburu genealogikoak kudeatzen, hautaketa-programak egin eta errendimendua kontrolatzen, lortutako emaitzak hedatzen eta animaliak eta produktuak merkaturatzen laguntzen duten elkarteak dira. Izan ere, hartara, landa-eremuak eta Euskadiko mendiko abeltzaintza garatzen eta sustatzen dituzte, eta hori da hain zuzen ere Eusko Jaurlaritzaren lehentasunetako bat.

Laguntzaren bidez, hauetatik eratorritako gastuak diruz lagunduko dira: abeltzaintzako lehiaketak antolatzea eta horietan parte hartzea, liburu genealogikoak sortzea edo mantentzea eta abereen kalitate genetikoari edo errendimenduari buruzko probak egitea.

Eskaerak eta aurkezteko epea:

Deialdiaren agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den hurrengo egunetik hilabeteko epea izango da eskaerak aurkezteko.

Prozeduraren informazio-fitxan daude laguntza izapidetzeko jarraibideak eta fitxa horretatik sartzten da eskariaren inprimaketan; agindua honako esteka honetan argitaratzen denean kontsultatu ahal izango da fitxa hori: www.euskadi.eus/servicios/1046107

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

EUSKO JAURLARITZAK 7,3 MILIOI EUROKO LAGUNTZA EMANGO DIO ARDOAREN SEKTOREARI ETA INBERTSIOAK SUSTATUKO DITU UPATEGIEN LEHIAKORTASUNA HOBETZEKO

- **Ezohiko laguntzen bidez JDK Errioxak sustatutako neurrietatik eratorritako diru-sarreraren galera konpentsatu nahi da; izan ere, neurri horren ondorioz, mahats gorriaren eta uzta berdearen errendimendua % 10 murriztu da**
- **Gainera, mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektorea bultzatzeko programarekin, mahastizaintzako azpiegituren eta merkaturatze-tresnen inbertsioa sustatzeko funtsak emango dira**

Gobernu Kontseiluak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburu den Arantxa Tapiaren agindua onetsi du gaur. 2023 urteari begira ardoaren sektorerako ezohiko laguntzak onetsi dira, JDK Errioxak babestutako mahastizainei laguntzeko Ukrainako gerratik eratorritako enpresa-etekinean izandako kalteengatik.

Errusiak Ukraina inbaditzean eragindako ezegonkortasun komertzialaren ondorioz, Euskadiko mahastizaintzaren eta ardogintzaren merkaturako esportazioak murriztu egin dira, eta, horrenbestez, upategietako ardo stockaren zati handia ezin da merkaturatu. Egoera hori dela eta, JDK Errioxak bi neurri abiarazi ditu 2023 kanpainarako: % 10 jaitsi bildutako mahats gorriaren errendimendu onargarrien muga eta uzta berdea sustatzea Espainiako Mahastizaintzaren eta Ardogintzaren Sektorea Laguntzeko Programaren (PASVE) baitan.

Eusko Jaurlaritzak 7,3 milioi euro emango ditu itzuli beharrik gabeko dirulaguntzen bidez Araban mahastizaintzan aritzen direnen diru-sarreraren galera arintzeko JDK Errioxak sustatutako neurriei eta horiei lotutako kostu gehigarriei aurre egiteko, bai eta eskaria eta eskaintza erregulatzeko ere, era horretan Euskadiko mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektorea berriro orekatu ahal izateko.

Ezohiko neurri horren bidez laguntza bikoitza eman nahi da: alde batetik, JDK Errioxak babestutako mahats gorriko ustategietan etekin ekonomikoaren galera konpentsatzeko 4 milioi euro emango dira; eta, bestetik, kanpaina honetan errendimendu txikiagoa aplikatzen dutenen galera ekonomikoak eta kostu gehigarriak arintzeko 3,3 milioi euro emango dira. Onuradun batek bi laguntza-ildoak eska ditzake.

Mahats gorriaren etekin ekonomikoak konpentsatzeko laguntzaren zenbatekoa finkatzeari dagokionez, hobari bat emango da mahats beltzaren hektarea bakoitzeko, baldin eta JDK Errioxak gehieneko errendimendua (5.850 kg/ha) aplikatzen badie. Hauek izango dira hobarien zenbatekoak:

- ≤ 30 ha-ko ustiategiak: 390 €/ha
- ≤ 30-60 ha-ko ustiategiak: 260 €/ha
- > 60 ha-ko ustiategiak: 130 €/ha

Errendimendua murrizteko lanengatik, galera ekonomikoak eta kostu gehigarriak konpentsatzeko laguntza uzta berdeko hektarea onargarri bakoitzeko finkatzen da PASVEren 2023ko deialdian. Hauek izango dira hobarien zenbatekoak:

- ≤15 ha-ko ustiategiak: 1.100 €/ha
- ≤ 15-30 ha-ko ustiategiak: 825 €/ha
- > 30 ha-ko ustiategiak: 550 €/ha

Laguntzak EAEko eta bertako edozein lurralde historikoko NUEn izena emanda dauden nekazaritza-ustiategietako titularrei zuzenduta daude, Arabako Lurralde Historikoko Mahastien Erregistroan izena emanda badaude eta JDK Errioxak babesten baditu.

Ustiategi onuradunen titularren behin-behineko zerrenda eta zenbatutako hektarea-kopurua Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioiko egoitza elektronikoan (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>) argitaratuko da agindua EHAAn argitaratu eta gehienez 15 eguneko epean.

Upategietan inbertitzeko laguntzak (ISV inbertsioa)

Horrez gain, Gobernu Kontseiluak ere 2024ko deialdia onetsi du mahastizaintzako eraldaketa-instalazioetako eta azpiegituretako inbertsio material eta immaterialetan laguntzeko, bai eta merkaturatzeko egitura eta tresnetan ere Mahastizaintza Sektorea Bultzatzeko programaren baita (ISV inbertsioa).

Nekazaritzako Orientazio eta Bermerako Europako Funtsetik (NOBEF) datozen laguntzak dira, eta horien helburua da enpresen etekin orokorra hobetzea, merkatuko eskarietara egokitzea eta lehiakortasuna areagotzea, modu horretan energia gehiago aurrezteko eta munduko efizientzia energetikoan eta prozesu jasangarrietan aurrera egin ahal izateko.

Ekintza hauetako kostuak diruz lagun daitezke:

- Ondasun higiezinak eraikitzea, erostea edo hobetzea.
- Makineria eta ekipamendu berria erostea produktuaren merkatu-baliora arte.
- Arestian aipatutako gastuei lotutako administrazio-gastuak, hala nola arkitektura, ingeniariak eta aholkularitza hobariak, baita bideragarritasun-azterketak ere.

- Ordenagailuko euskarri logikoak erostea edo garatzea eta hauek eskuratzea: patenteak, lizentzia, egile-eskubideak eta taldeko markak erregistratzea.

Laguntza horien onuradunak mahastizaintzako eta ardogintzako enpresak, mahastizaintzako eta ardogintzako ekoizleen elkarteak, bi ekoizle edo gehiagoren elkarteak (izaera juridikoarekin) eta lanbide arteko edo langileen elkarteak dira.

Eskaerak EHAAAn Agindua argiratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira 2024ko otsailaren 1era arte. Dena den, 2023ko apirilaren 1etik aurrera aurkeztutako eskaerak ere onetsiko dira.

Prozeduraren informazio-fitxan daude laguntza izapidetzeko jarraibideak eta fitxa horretatik sartzen da eskariaren inprimakietan; agindua honako esteka honetan argitaratzen denean kontsultatu ahal izango da fitxa hori: <https://www.euskadi.eus/servicios/1222903>

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 816 MILIOI EURO BIDERATU DITU 2023-2024 IKASTURTEKO HEZKUNTZA-ITUNAK FINANTZATZEKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du, Euskadiko unibertsitatez kanpoko ikastetxe pribatuen 2023-2024 ikasturteko hezkuntza-itunak gauzatu ahal izateko gastu aurreikuspena. Gastu aurreikuspen hau 816.196.442,64 eurokoa da, 7.445 gela ituntzeko, bai eta hezkuntza-laguntzako berariazko premietarako eta hezkuntzako desberdintasunak konpentsatzeko laguntzako 2.769 langile osagarri ituntzeko ere.

Kopuru oso horretatik, 272.065.483,62 euro 2023ko iraila-abendua aldiari dagozkio, eta gainerako 544.130.959,02 euroak, 2024ko urtarrila-abuztua aldiari.

Aurreikuspen horrek bere baitan hartzen du lehenengo aldiz 2 urteko gelak (Haur Hezkuntzako lehen etapako hirugarren maila) ituntzea, gero eta handiagoa den laguntza-langile osagarrien beharra finantzatzea, eta indarrean dauden moduluak eguneratzea, aplikatzekoak diren soldata-igoeren arabera.

2023ko maiatzean, 2023-2024 ikasturtean itundu beharreko gelen eta langile osagarrien eskariak aurkezteko epea ireki zien Hezkuntza Sailak itunpeko ikastetxeei. Honako ikasketa hauek itundu daitezke: Haur Hezkuntzako lehen zikloko hirugarren maila, Haur Hezkuntzako bigarren zikloa, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa (oinarrizko maila, erdi maila, goi maila eta espezializazio-kurtsoak) eta Heziketa Bereziko irakaskuntzak. Ikasturte berri honen berritasuna da 2 urteko gelak (Haur Hezkuntzako lehen etapako hirugarren maila) lehen aldiz finantzatzen direla hezkuntza-itunaren bidez.

Eskaera horien ebazpena egin ondoren, 2023-2024 ikasturte honetan 318 itunpeko ikastetxe daude Euskadin: 34 Araban, 164 Bizkaian eta 120 Gipuzkoan. Orotara, 7.445 itunpeko gela batzen dituzte guztien artean, bai eta gorago aipaturiko 2.769 langile osagarri itundu ere.

Hezkuntza-laguntzako berariazko premietarako eta hezkuntzako desberdintasunak konpentsatzeko laguntzako langile osagarrien artean, honako baliabide eta programa hauek daude: Haur Hezkuntzarako baliabide gehigarriak, Pedagogia Terapeutikoko irakasleak (Lehen eta Bigarren Hezkuntza), Hezkuntza-laguntzako Espezialistak, Hezkuntza Berriaz Sendotzeko Programak, Curriculum Aniztasuneko Programak eta Eskolatze Osagarriko Programak.

Hezkuntza-itunen bidez, ikastetxe pribatuetako irakaskuntza-jardueratik eratorritako gastuak finantzatzen dira, aurrez aipaturiko etapa horietan. Ikastetxean itunduriko talde kopuruaren arabera kalkulatzen den diru-kopuru hori, pertsonal gastuetara bideratzen da (izan irakasle, ez irakasle edo gainerako hezitzaileak), nahiz ikastetxeen ohiko funtzionamenduak eragindako gastuetara.

Hezkuntza

17,2 MILIOI EURO HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOA ESKAINTZEN DUTEN ESKOLA PRIVATUETARAKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2023-2024 ikasturterako Haur Hezkuntzako lehen zikloa eskaintzen duten titularitate pribatuko haur-eskolentzat dirulaguntzak arautzen dituen Agindua.

Hezkuntza Sailak 15.250.000 euro bideratzen ditu dirulaguntza deialdi honetara, honako helburu hauekin: aipaturiko hezkuntza zentroak mantentzen laguntzea, zerbitzu horiek erabiltzen dituzten familien kuotak gutxitu eta bateratzea, eta zerotik hiru urtera arteko haurrentzako eskola horietan ematen diren hezkuntza eta zerbitzuaren kalitatea hobetzea. Era berean, egun dagoen eskaintza finkatzea ere bada deialdi honen xedea.

Eskola hauek, sare publikoko haur-eskolek eskaintzen duten zerbitzuaren osagarri dira, eta haiekin batera, familia-bizitza eta lanbidea bateratzeko aukera eskaintzen diete hainbat euskal familiari.

Egun, Haur Hezkuntzako lehen zikloa eskaintzen duten 200 zentro inguru daude Euskadin, hezkuntza-maila hori eskaintzeko behar bezala baimenduta egonik, dirulaguntza hauen onuradun izan daitezkeenak.

Hezkuntza

750.000 EURO LANBIDE HEZIKETA DUALEKO PROGRAMAK GARATZEKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du 2023-2024 ikasturtean Lanbide Heziketako itunpeko ikastetxeetan ikas-ekinezko erregimenean Lanbide Heziketa Dualeko programak garatzeko dirulaguntzak deitzen dituen agindua. Deialdi honek 750.000 euroko zenbatekoa du.

Deialdi honek bultzatzen dituen Lanbide-Heziketa Dualeko programek ikasleen prestakuntza bi eremutan lantzen dute: bai ikastetxean bertan, bai lantokian (enpresan). Lanbide-gaitasunak, gaitasun pertsonalak zein sozialak hobetzea dute helburu programok, ikas-ekinezko erregimeneko hasierako Lanbide-Heziketako titulu bat lortzeko, enpresan ordaindutako lan-jarduera bat burutuz. Programa horietan parte hartzen duten ikasleek, beraz, Lanbide Heziketako ikastetxean jasotzen duten prestakuntza ekoizpen eta lan-ingurune erreal batean jasotzen dutenarekin uztartzen dute. Horrek zuzenean dakar ikasle horiek hobeto prestatzea eta, ondorioz, prestakuntza dualeko programetan parte hartzen duten ikasleek laneratze-tasa oso altuak izan ohi dituzte ikasketak amaitzean.

Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke Lanbide Heziketako zikloak (Oinarrizkoak, Goi-mailakoak edo Erdi-mailakoak) itunpean ematen dituzten Euskadiko ikastetxeen erakunde (edo pertsona) titularrak. Horretarako, 2023-2024 ikasturterako Hezkuntza Sailak onartuta eta baimenduta izan beharko dute ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa Dualeko programa, ikastetxeak eta enpresa parte-hartzaileak elkarrekin lankidetzan egina izan beharko duena.

Dirulaguntza hau irakasleek prestakuntzaren tutoretza eta jarraipen-lanak egin ditzaten erabili beharko dute dirulaguntza hau ikastetxe onuradunek, bai eta programan esku hartzen duten gainerako irakasle eta tutoreekin ebaluazioa koordinatzeko ere. Tutoretza egiten duen pertsona hori izango da, halaber, enpresarekiko solaskidea prestakuntza-jarduera garatzeko.

Joan zen 2022-2023 ikasturtean, Euskadiko 2.282 ikaslek hartu zuten parte Ikas-ekinezko Erregimeneko Lanbide Heziketa Dualeko programetan. Horietatik 1.282 ikastetxe publikoetakoak ziren, eta gainerako 1.000 ikasleak itunpeko ikastetxeetakoak, iazko deialdiaren bidez.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

EUSKO JAURLARITZAK 9 MILIOI EUROREKIN LAGUNDUKO DIE GARRAIO PUBLIKOAREN OPERADOREEI, 2023KO LEHENENGO SEIHILEKOKO DESKONTUAK FINANTZATZEKO

Gobernu Kontseiluak gaur onartu ditu, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak, Iñaki Arriolak, eskatuta, foru-aldundiei, udal batzuei eta Bizkaiko Garraio Partzuergoari emango zaizkien dirulaguntza zuzenak, garraio publikoaren operadoreei 2023ko lehenengo sei hilekoan Euskadi osoan bidaiarientzat % 50eko hobariak mantentzeko kostuak finantzatzen laguntzeko.

Horrela, Garraio Sailak datozen egunotan ordainduko ditu dirulaguntza zuzen horien bidez urteko lehenengo sei hilekoan kostu horiek ordaintzeko 9,08 milioi euroak. Laguntza hori Euskadiko Garraio Agintaritzan lortutako akordioaren ondorio da. Horren arabera, Eusko Jaurlaritzak % 10 finantzatuko du, tokiko erakundeak % 10en kargu egingo dira eta gainerako % 30 Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioari dagokio. Aipatutako 9,08 milioi horiek batuko zaizkie 2022ko azken lauhilekoan, inflazio-testuinguru batean herritarrei laguntzeko eta garraio publikoaren erabilera sustatzeko neurri hau abian jarri zenean, helburu horretara bideratu ziren 6,06 milioi euroei.

Lurraldez lurralde, Araban Foru Aldundiak 0,33 milioi euro jasoko ditu eta Gasteizko Udalak 0,35 milioi. Bizkaian, Foru Aldundiak 1,68 milioi jasoko ditu, eta Bizkaiko Garraio Partzuergoak 3,25 milioi, Bilboko Udalak 0,56 milioi, Barakaldokoak 17.844 euro, Leioakoak 2.936 euro, Etxebarrikoak 9.182 eta Erandiokoak 2.112. Gipuzkoaren kasuan, Foru aldundiak 1,73 milioi jasoko ditu, Donostiako Udalak 1,04 milioi, Arrasatekoak 5.160 euro, Irungoak 58.006, Errenteriakoak 20.155, Zarauzkoak 4.215, Eibarkoak 1.528, Lasarte-Oriakoak 880 euro, Oiartzungoak 849 euro, Oñatikoak 859 euro eta Hernanikoak 753.

Osasuna

**OSASUN SAILAK ETA UPV/EHUK FAMILIA ETA KOMUNITATEKO
MEDIKUNTZAKO IKASGELAREN —LEHEN MAILAKO ARRETAKO
PRESTAKUNTZA-ESPARRUA— INGURUKO HITZARMENA BERRITU
DUTE**

- **Ikasturte honetan, Familia eta Komunitateko Arreta ikasgaia emango da aukerako irakasgai gisa, Medikuntzako Gradu ikasketa-planaren hirugarren mailan**
- **Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren lehentasunezko helburu estrategikoetako bat da Lehen Mailako Arreta indartzea**

Eusko Jaurlaritzako Osasuneko sailburu Gotzone Sagarduik eta Euskal Herriko Unibertsitateko errektore Eva Ferreirak bi erakundeen arteko lankidetzahitzarmena berritu dute ikasturte hasiera honetan, Familia eta Komunitateko Medikuntzako Ikasgela mantentzeko. Ikasgela hori 2018an sortu zen eta 60.000 euroko laguntza jasotzen du urtean.

UPV/EHUko Leioako Medikuntza Fakultatean dagoen ikasgela honen helburua da irakaskuntzaren, ikerketaren eta emaitzen eraldaketaren arloko jarduketak garatzea, osasun publikoko lehen mailako arretarekin eta arreta komunitarioarekin lotutako gai espezifikoetan.

Gainera, 2023-2024 ikasturte honetan, Familia eta Komunitateko Arreta ikasgaia emango da aukerako irakasgai gisa, UPV/EHUk ematen duen Medikuntzako Gradu ikasketa-planaren hirugarren mailan. Ildo horretan, osasunaren lehen mailako arretarekin, arreta komunitarioarekin, osasun publikoarekin eta lehen mailako arretaren arloan interesgarritzat jotzen diren beste arlo batzuekin lotutako gai espezifikoetan sakonduko da.

Akordio honen bidez, bi erakundeek UPV/EHU Familia eta Komunitateko Medikuntzako Ikasgela bat baliabide ekonomikoz hornitzen jarraitzeko duten interesa gauzaten da berriro, Lehen Mailako Arretan ikerkuntzan prestatzeko, dokumentatzeko eta laguntzeko sistema integratu gisa. Esparru hori indartzea da Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren lehentasunezko helburu estrategikoetako bat.

HITZARMENAREN HELBURUAK ETA JARDUERAK

Hitzarmenetik nabarmendu beharreko helburuen artean Familia eta Komunitateko Medikuntza sendotzea dago, Medikuntzako Gradu ikasketetan Lehen Mailako Arretako prestakuntza-esparru gisa, eduki eta jarduera berriak txertatuz, Familia eta Komunitateko Medikuntzako titulazioa duten irakasleen premietan oinarrituta. Gainera, Familia eta Komunitateko Medikuntzako espezialistek eta espezialitateko egoiliarrek kongresuak eta doktore-tesiak egitea ere sustatzen da.

Jarduerei dagokienez, honako hauek burutu dira: orientazio profesionaleko jardunaldiak Fakultateko irakaskuntza-unitateetako Medikuntzako 6. mailako ikasleentzat; "TEDTalks" motako hitzaldiak, familia-medikuek ikasleentzat egindakoak; eta material didaktikoa edo simulazioko hezkuntza-programak eta kasu klinikoak egiteko ikastaroak. Bestalde, Ikasgelarako simulazio-diagnostikoko zentro bat ezarri da, eta trebetasunen laborategia (Ospitale Birtuala) muntatu da garai bateko "bunker" deitutakoaren espazioan, Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko sotoan, Leioan.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK KONTSEILUAN ONARTU DU INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO LAGUNTZETARAKO AURREKONTUA %52,75 GEHITZEA, 2023AN 2.44 MILIOI EURORAINO

- **844.010 euroko gehikuntza dakar, aurrekontuan sartutako hasierako zenbatekoarekin alderatuta: 1.600.000 euro**
- **Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak bizi diren tratu txarren egoeratik errazago ateratzeko eta haien gizarteratzea errazteko baliabide ekonomikoak bermatzea da helburua**
- **2023ko lehen seihilekoan, 191 laguntza-eskaera onartu dira genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat**

Gobernu Kontseiluak, gaur, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburu Nerea Melgosak proposatuta, Genero Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako diru-laguntzaren barruan esleitutako zenbatekoa handitzea onartu du. Zenbatekoa 2.444.000 eurokoa da. 844.010 euroko gehikuntza dakar, ekitaldi honetarako aurrekontuan sartutako zenbatekoarekin alderatuta: % 52,75.

Laguntza ekonomikoen helburua diru-sarrerarik eza edo diru-sarreraren urritasuna aldi baterako arintzea da, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria jasaten duen emakumeari bizirauteko gutxieneko baliabide batzuk emateko, erasotzailearengandik independizatzeko eta erasotzailearengandik independentea den bitzita berri bati ekiteko.

2023 honetan, hasierako aurrekontua 1.600.000 eurokoa zen, 2022an gastua ixteko erabili zen zenbateko bera.

Lehenengo seihilekoko izapideen datuak aztertu ondoren (275 eskariri buruzko 191 eskaera eman dira, esleitutako aurrekontuaren %75), kreditua handitu egin da laguntza eskatzen duten genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei baliabide ekonomikoak eman ahal izateko.

Laguntza hau Genero Indarkeriaren biktima diren emakumeentzat bakarrik da, hau da, Lege Organikoak dioen bezala, bikotekidea den edo izan den emakume baten aurka beti gizon batek egiten duen indarkeria. Hau da, ez lirateke sartuko beste edozein indarkeria matxistaren biktimak, hala nola familia barruko genero-indarkeria, sexu-askatasunaren aurkako indarkeria, lan-ingurunean tratu edo jazarpena.


Diru-kopuru handi samarra denez, eta behin bakarrik, laguntza honen helburua da emakumea bizi den tratu txarren egoeratik errazago ateratzea bideragarri egitea, eta bizimodu independente bati (etxebizitza, hezkuntza, elikadura eta abar) aurre egiteak dakartzan gastuei aurre egin ahal izatea eta dirurik ez izateagatik berarekin jarraitu beharrik ez izatea.

Ildo horretan, eta Indarkeria Matxista prebenitzeko eta hari aurre egiteko, Melgosa sailburuak zuzentzen duen sailak honako hauen bidez borrokatzen du: Emakundek eta bere ardurapeko zuzendaritzek zeharka garatutako ekimenak; Indarkeria Matxistaren Biktima diren Emakumeentzako Informazio eta Arreta Zerbitzu Espezializatua-Satevi (900 840 111), Biktimari Laguntzeko Zerbitzua-BLZ (900 100 928) edo genero-indarkeriaren ondorioz umezurtzentzako laguntzak, besteak beste.


Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako diru-laguntzak 2023

| | Ardurapeko pertsonarik gabe | Senide bat edo ardurapeko adingabea | 2 senide edo gehiago ardurapean |
|--|-----------------------------|-------------------------------------|---------------------------------|
| Ezgaitasunik gabeko emakumea | 2.880 € | 5.760 € | 8.640 € |
| % 33ko edo hortik gorako ezgaitasuna duen senide bat edo adingabe bat duen emakumea. | 2.880 € | 8.640 € | 11.520 € |
| % 33ko edo hortik gorako ezgaitasuna duen emakumea | 5.760 € | 8.640 € | 11.520 € |
| % 33ko edo hortik gorako ezgaitasuna duen emakumea eta % 33ko edo hortik gorako ezgaitasuna duen senidea edo adingabea bere kargura duena. | | 11.520 € | 11.520 € |
| % 65eko edo gehiagoko ezgaitasuna duen emakumea, edo% 65eko edo gehiagoko ezgaitasuna duen senide bat edo adingabe bat bere kargura duena. | | 11.520 € | 11.520 € |

AVVG-Registro de solicitudes



Indarkeria matxistarako laguntzen aurrekontua



Seguridad

EL GOBIERNO VASCO AMPLÍA LA PARTIDA PARA LA EUSKALDUNIZACIÓN DE LA ERTZAINZA ANTE EL NOTABLE INCREMENTO DE LA DEMANDA DE LAS Y LOS AGENTES

- **Pasa de 600.000€ a 850.000€ para que las y los agentes puedan estudiar euskera, de manera gratuita, fuera de su horario laboral**

El Consejo de Gobierno ha acordado, en la reunión de hoy, ampliar, tanto en horizonte temporal como en presupuesto, el acuerdo entre el Departamento de Seguridad y el instituto de alfabetización y reeuskaldunización de adultos (HABE) para la organización de cursos de euskaldunización de las y los agentes de la Ertzaintza fuera de su horario laboral.

El acuerdo en vigor, suscrito el 22 de septiembre de 2022, contemplaba un presupuesto total de 600.000€ para cursos hasta el 30 de setiembre de 2023: 400.000 para el año 2022 y 200.000 para el año 2023. Las solicitudes han superado considerablemente la previsión inicial por lo que el crédito de este año, 2023, se ha quedado insuficiente. Por ello, el Gobierno ha aprobado la ampliación, tanto del tiempo como del importe del acuerdo, de manera que se prorroga desde el 1 de octubre de este año 2023 hasta el 30 de setiembre de 2024, así como el importe a 850.000€: pasa a 550.000 para este año 2023 y 300.000 para el 2024.

El acuerdo encarga a HABE la gestión de las actividades materiales, técnicas y de servicio para la organización de cursos para el personal de la Ertzaintza, tanto presenciales como en la modalidad de autoaprendizaje. Esto permitirá seguir avanzando en la euskaldunización de la plantilla, uno de los objetivos prioritarios del Departamento de Seguridad para consolidar una organización policial que pueda dar un mejor servicio a la ciudadanía, respondiendo a la creciente demanda de una Ertzaintza que se relacione con la sociedad en euskera.

Colaboración desde 2017

Esta colaboración entre HABE y el Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco se viene desarrollando desde el año 2017, cuando se dispuso un primer convenio que se ha venido reeditando anualmente. El importe acordado cubre el coste de las matrículas y tasas de las y los agentes que deseen participar en los diferentes cursos.

Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente

APROBADAS LAS AYUDAS A LAS ASOCIACIONES QUE CONSERVAN, MEJORAN Y FOMENTAN LAS RAZAS PURAS GANADERAS DE EUSKADI CON UNA DOTACIÓN DE 480.000 EUROS

- **Estas asociaciones impulsan la modernización de las explotaciones ganaderas de razas puras para alcanzar una mayor eficacia en la producción y mayor rentabilidad**
- **Se subvencionarán los gastos derivados de la organización y participación en certámenes ganaderos, el mantenimiento de libros genealógicos y la realización de pruebas de calidad genética o rendimiento del ganado**

